

Aretxabaleta,
1992ko uztailak 2

Aretxagazeta



Osasuna, herriko ondasuna

• Udaleku irekiak
prest.

• Atxabaltartua:
Georgia
Theodorou

• Amantalaz:
Iñaki Arana

9 zka.



PAUSOKA, zer izango da "asmakizun berri" hau? Orain dela bi urte gai honek gure herritarren artean nahiko zurrumurru sortu zuen. "Han,e... goardiazi-

0-3 etapa oso garrantzitsua da pertsonaren garapenerako.

Aparkatu edo hezi?

bilen koartelien umiendako zerbait ipini daue." "Sekulako negoziue einbier ei daue, lau neskatilak." "Zer einbiedaue jan dala besteik eitten eztauien umiekin?".

Hautzaindegia, hasiera batean (hitzak adierazten duen bezala), gurasoak lanean zeuden bitartean haurrak eukitzeko toki bat zen, aparkaleku bat, lan honetarako inongo profesionaltasunik behar ez zelarik. Oraindik ere kontzeptu hau gizarte sektore batean sustraitu dago, baina zorionez mentalitate hau aldatuz doa.

0-3 etapa oso garrantzitsua da pertsonen garapenerako, urte hauetan umeengan ematen diren

aldaketak edo aurrerape-nak bizitzako edozein garaitakoak baino askoz ugariagoak bait dira. Hezkuntz programa eta estimulazio egoki baten bidez bere ahalmen guztiak lantzen lagun diezaiokegu.

Hezitzea eta erakustea sarritan nahasten diren kontzeptuak dira, baina hezitzea askoz gehiago da: haurrak bere kabuz egiten dituen ekintza guztiei zentzu bat ematea da. Bilatu, gorde, pilatu, lerrokatu, buzti, jantzi, garbitu,... bere autonomia lortzea eta sozializazio prozesu batean sartzen laguntzen dioten ekintzak dira. Ekintza hauek jolasa-

ren bidez garatzen dira, hezitzea jokua bait da.

Beraz, argi gelditzen da Haur Eskolara etortzen diren haurrak ez direla aparkatzen, hezi baizik, heziketa oinarriak guraso eta zentroaren artean ezartzen direlarik.

Pentsamendu hau guraso atxabaltarren artean finkatuz doala ikusten dugu. Hau posible izan da gugan hasiera batetan konfidantza jarri zutenei esker: guraso eta orduko Udal Banzordea.


Zoritarrez, herritarren pentsakeraren aldaketa ez da nahikoa, Erakundeen konpromezua ere beharrezkoa da PAUSOKA Haur Eskola aurrera eramateko.

Maite Ortiz de Zarate.
Hautzaindegiko zuzendari pedagogikoa

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakubxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Agurtzane Elkoro, **Argazkiak:** Josu Lazkano **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Inaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabaita, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Zer daukazu esateko?



Saioa Arando
(Ikaslea)

Jende gazteak herrian egiten diren gauzetan ez du parte hartzen, beti igualak izaten gara. Ez daitezela kejaratu herrian ez dela ezer egiten, egiten denean inork ez du partehartzen.



Maria Jesus Zabala
(Etxekoandrea)

Nire etxe azpiko hormak denak karteletan beteta daude. Ipintzea ondo dago, baina gero ipintzen duenak kendu egin beharko litzuke. Kale erdian igual kenduta daude, baina Kalebarrenen ez.



Iñigo Zubia
(Ikaslea)

Aretxabaleta hobetzea. Kale behean dagoen frontoia txikia da, handitu egin beharko litzateke. Jolasteko oso toki gutxi dago.



Jesus Mari Andres
(Ikaslea)

Portasoleko jaiak ea aurten hobeak diren. Joan zen urtean adibidez ez zen gauza handirik egon, lehen hobeak izaten ziren.

KARTAK

Arkarazoko txabola, horrela entretenitzen da Udala

1992-6-1ean egindako Gobernu Batzordeko Alkatetzaren erabaki bat, 1992-6-23an eman zen jakitera eta 1992-7-1ean gauzatu gura dute. Zergatik atzerapen hori jakitera emateko? Udalean ez ote daude horretarako epeak? Arkarazoko txabola jaiak bukatuta gero (1991-11-12) botatzea pentsatzen zuten; baina ez zuten egin. Zergatik orain hainbeste presa?

Txabolaren erabilera baimentzen dute:

- Udalaren probetxamendurako balio badu. Akaso, Arkarazoko auzokideok beste galaxia batekoak gara?

- Giltzak eman eta titularitatea Udalaren izenera pasetan bada. Beste propietate batzuk inguratutako lur sail txikia okupatzen du. Zelan ipini daiteke titularitatea Udalaren izenean eta bere aprobetxamendurako

helikopteroz heldu behar izan?

Txabola kolokan eraikizela esan zitzaigun; beraz, eskubide barik eta herri guztiak orokorrean erabiltzeko moduan. Zer gehiago eskatu eta eskaini daiteke?

Pasatu egin direla uste dugu. Azatza, Portasol, Bainuetxen... egin daitezke txabolak?

1990eko auzoko jaien dirulaguntzak errentituta daude. Ez ziren

arrakasta handiz egin eta gastuak justifikatu?

Alkate jauna, zeuk daukazu boterea eta gura duzuna egingo duzu; baina zuen arrazoiak pobreak iruditzen zaizkigu. Gura duzuen egin. Gu lasai lo egiten saiatuko gara.

Txabola dela eta, honako hau esanez bukatu dezakegu: dena txarto egin dute.

Arkarazoko auzoa



Errekak gainezka

Ekaineko azken asteazkenean, Gipuzkoako beste herri batzuetan moduan, Aretxabaletan ere urak gainezka egin zuten; San Martin pareko errekak eta Almenekoak.

Eguerdian jausi zen

euritearen ondoren San Martingo etxeak eta kotxeak urez bêteta geratu ziren.

Almenen ere, uraren eraginagatik, han zeudenak, landroverren laguntzaz jeitsi ziren.

TASOC moduluaren amaiera

Almenen, azken bi urte hauetan eman den TASOC (Técnico en actividades Socio Culturales) moduluari amaiera emateko, "El Técnico en actividades socioculturales" liburuaren aurkezpena egin zen.

Modulu hau Euskal Herrian egin den lehena

da.

Bertan Jose Luis Madrazo Eusko Jaurlaritzako kultura Saileko Gazteria eta Komunitate Ekintzetako zuzendaria egon zen, baita liburuaren egileak ere; Roberto Gómez de la Iglesia eta Miguel Angel Pérez Martin.



Atzeratuen kontzentrazioa Elixabarrian

Datorren zapatuan, uztailaren 4ean, eguerdiko 12etatik aurrera Aretxabaletako atzeratuen lehenengo kontzentrazioa egingo da Elixabarrian.

Ospakizuna Aretxabaletako Atzeratuen Aldeko Batzordeak antolatu du eta egun horretan ere Atzegi Elkarteak egindako BIZI-ELKARBIZI kanpainari amaiera emango zaio.

Elixabarrian egingo den jai horretan edade guztietako jendeak parte hartzeko moduko jokoak izango dira eta horrelako jai giroetan inoiz falta ezin diren musika

eta dantzaldia.

Kontzentrazio horretako ekintzarik nagusia bertan egingo den bazkaria izango da. Bazkarian berrogeitamaren bat lagun elkartzeko dira, atzeratuak eta familiakoak.

Zapatuko jai horren ospakizunerako Aretxabaletako gazte batzuen laguntza estimagarria izango dute antolatzaileek, gazte horiek egun horretako jai giroa alaitzen ibiliko dira.

Eguraldiak lagunduko ez balu, jai eder hori Elixabarrian egin beharrean Mendiolan egingo litzateke.

ohialak

Gorbea, 4
Tfnoa: 79 67 52
ARETXABALETA

BENGA
Mertzeria

Durana, 13
Tfnoa: 792100
ARETXABALETA

IMANOL ALTUBE

ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK

Durana, 36
Tfnoa: 79 10 60
ARETXABALETA

EXPRESS
AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43



Udaleku irekiak prest

Aretxabaletako Udal Kultura batzordeak urtero antolatzen dituen udalekuetakoko taldeak eginda daude. Uztailaren 1etik 14era izango da lehenengo txanda eta bigarrena uztailaren 15etik 29ra. Lehenengoan 180 haur izango dira 20 taldetan banatuta. Bigarreneko 140 haur daude apuntatuta eta izen emateko epea bukatuta egon arren, oraindik aukera daukazu apuntetako.

Udaleku horietan Atxabaltako eskola guztie-

tako haurrak daude: Santa Rita, Udal Eskolaurrea, Kurtxebarri eskola eta Almenekoak.

Hasieran 40 begirale apuntatu arren, azkenik 20 hartu dituzte. Horretarako azterketa bat pasatu behar izan dute. Begirale hauek, 18 urtetik 24era bitartekoak dira eta horietako asko esperientziadunak. Begiraleak joan zen eguenean hasi ziren lanean, haurrak 15 egunetan zehar egin behar dituzten ekintza desberdinak prestatzen.

San Kristobal jaiak Larrinon

Datorren uztailaren 10, 11 eta 12an Larrinoko auzokoek San Kristobal jaiak ospatuko dituzte.

Eguakotxean 7,30etan hasiko dira San Kristobal jaiak etxaleruen jaurtiketa eta kanpai jotzarekin, horren ostean automobil gidarien aldeko meza emango da, eta San Kristobali lora eskaintza egingo zaio. Gabeko 10,30etan dantzaldia izango da Josu eta Jokin trikitilariekin.

Zapatuan, goizeko 12etan pilota partiduekin hasiko da programa. 6etan umeentzako jolasak egongo dira eta ordu berean, mus txapelketa, Larrinoko San Kristobal Elkartearen Gabeko 9etan auzo afaria egongo da eta dantzaldia trikitilari famatu batzuekin.

Azkenik, domekan, jaiari bukaera emateko, eguerdiko 12etan meza nagusia izango da, Aretxabaletako abesbatzak kantatutako meza eta gero "lunch"-a guztien dako.

- Joan zen asteburuan, Donibane Lohitzunen egin zen Euskal Kantaren finalean, Bego Lekunberri Atxabaltarrak musika kreazioaren saria irabazi zuen.

- Urteroko moduan aurten ere, abuztuan, Aretxabaletako igerilekuko karnetarekin, Arrasateko pisinetara joateko aukera izango da, abuztuan Aretxabaletako pisinakin itxita egongo direlako.

IRIARTE

Umeen denda



DURANA, 8

Tfnoa: 79 10 96



Aretxabaletako industrialdea

Basabe poligonoa B-0
Tfnoa: 79 62 80

JOSTEKO

OIHAL DENDA

Uztailean beherapenak

Errekararren 20, Tfnoa: 79 80 90
ARETXABALETA



Industrialdea, azken fasean

Orain dela urte batzuk martxan jarri zen Industrialdearen proiektua 1993. urteko urtarrilerako bukatzea espero da.

Herrian inportantzia eta eragin handia izan du proiektu honek; gaur egun 61 enpresa daude bertan kokatuta eta berorietan 650 langile da biltza lanean.

Datorren urterako egingo diren pabiloi berriek 3.000 metro karratu eukiko dute tailerretarako eta beste 1.500 metro karratu bulegoak egiteko.

Industrialdearen azken fase honek aurreko pabiloien diseinu bera izango du, industrialdearen itxura errespetatuaz.

Pabiloi barrietan manufakturararako bost tailer egiteko asmoa dago eta horiekin batera, injeerneritzarako beste 7 edo 8

tailer.

Horrelako proiektuek azpiegitura egokia behar dutenez, Industrialde barri horren ondoan aparkaleku handi bat egingo da enpresen erabilpenerako.

Aurreko astean martxan jarri zen azken fase horrek 250 milioiko aurrekontua dauka.

Horrela, 1993an ARINSA (Aretxabaletako Industrialdea S.A.) bukatutzat emango da; hala ere, oraindik sortu daitezke proiektu barriak.

Azken fasearekin bukatzen denean, Industrialdeak 30.000 metro karratutako zabalera izango du, 75 bat enpresatan banatuta eta 750 langilerekin.

Garai bateko ideia haundi hura laster errealitate bihurtuko da.

UDALETIK

Etxafleruak

Hainbat atxabalta-rrengandik jaso dira kexak gaueko edozein ordutan botatzen diren etxafleruak direla eta. Esan beharra dago, Udalak ematen dituen etxafleroak kontrolaturik daudela eta jaurtizeko ordutegia (goizeko 8etatik gaueko 10etara). Gaueko 10etatik aurrera botatzen direnak "legez kanpo" daude, ordutik kanpo botatzen direnak ez dira Udalak emandakoak ezta Udalaren baimenarekin botatukoak ere.

Gaikuntza ekintzak

Urtero, Deba Garaiko Udal Elkarteak, Udalaren laguntzaz, gazteentzat gaikuntza ekintzak antolatzen ditu. Diru eta ikasle banaketa, herri bakoitzeko biztanleen arabera egiten da.

Aurten ere hiru sailetan zabaldu dira ahalgintzak:

1.- Lanbide hastapena: 16/17 urte dutenentzat. Bertan material eta makinaria ezberdinen erabilera ikusi, ikasi eta trebatzen dute. Aretxabaletako 5 ikasle ditugu eta Udalak jartzen duen diru kopurua 880.320

pztatakooa da.

2.- Heziketa Okupazionala: 18 urtetik gorakoentzat. Aretxabaletako Udalak 2 ikastaro antolatu ditu; bata Etxe-etxeko laguntzaileentzat, eta bestea Merkatal Teknikariak hezitzeko ikastaroa. Lehena 200 ordutan emango da eta bestea 5 hilabetetan zehar. Aretxabaletako Udalak 5.625.000 pztata jarri ditu.

3.- Lankide Eskola: 18-25 urte bitartean daudenentzat. Aretxabaletari 3 ikasle dagozkie. Hiru urtetan zehar ikasleak hiru tailerretan arituko dira: igeltseritza, zurgintza eta elektrizitatea. Hilean ikasleek soldata txiki bat jasoko dute.

Material berria

Kiroletxeko gimnasioan betidanik materiala egon izan da. Batzutan erabilpenagatik edo erabilpen txarragatik, bestetan norbaiti gustatu eta eraman dituelako, kontua da gaur egun egoera guztiz eskaxa erakusten duela gimnasioak. Honi erantzuna emateko aurrekontuetan adierazi zen eta dagoneko erosi dira materiale berriak. Bertan jarriko diren gauzak errespetatu ditzagun.



Mendian gora Murrukixorekin

Orain dela bost bat ure inguruko herrietan mendizale tasunak zeukan indarra ikusita, Aretxabaletan ere mendirako zaletasuna pizteko asmoaz Murrukixo Mendizale Elkarteak sortu zen. Murrukixo, Oron dagoen iturri baten izena da, euren konpondu eta txukundu zuten iturria.

Laster igarri zen Murrukixoren eragina herrian, 60 federatu izatekin gaur egun 250 dauzkate, eta ia 500 bazkide.

Ekintzak

Murrukixok ekintza ugari eta inportanteak egiten ditu. Astero urteraren bat antolatzen

dute. Era guztietako urteerak izaten dira: inguruko mendietara, Gipuzkoako itzulia, Euskal Herri mailako urteerak, Pirineoetara egunak pasatzera...

Horretaz aparte, azaroan Mendi Astea antolatzen dute; oso ekintza inportantea dena eta ezaguna. Estatu mailako mendizale

inportanteak ere etortzen dira (C. Valles...) hitzaldiak eta proiektzioak ematera.

Bada Murrukixok antolatzen duen beste ekintza bat Euskal Herri mailan oso ezaguna dena, Argazki eta Diapositiba lehiaketa. Kalitate handiko lehiaketa izaten da, parte hartzaile askorekin.

Ikastaroak ere antolatzen dituzte urtean zehar: eskalada, piraguisimo, lehenengo laguntzak...

Materiala

Murrukixok Durana 13n dauka lokala, eta bertan mendirako materiala gordetzen dute, material hori garestia da; baina bazkideek erabiltzeko eskubidea daukate.

Espedizioak

Inurrategi anaien espedizioen laguntzaile da Murrukixo eta aurten Everestera heltzeko asmoa daukate. Hala ere, beste bazkide batzuk ere lotu dute mendi inportanteetara igotea (Kili-manjaro, Akonkagua...).




**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkarria**

**LASA AGUILERA
AHOLKULARITZA**

Andra Mari Auzunea
Tfnoa: 72 29 26

ARETXABAETA



LENIZ

LIBURUDENDA


**HERRIKO
PLAZA**

TFNOA:
791616

**ARETXABAETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABAETA

Ez da gustoko lekua, baina gehienok handik urtero bueltatxo bat egiten dugu. Atxabaltako osasun zentrutik nor ez da inoiz pasatu? Leku hori denok ezagutzen dugu, baina bertako barri ez dakigu hainbeste. Gure herriko Osasun Zentrua pioneroa da Euskal Herrian. Luis Orruño sendagilearekin elkarrizketa txiki bat euki dugu, denontzat den zentru honen gorabeherak jakin guran.



Euskal Herriko Osasun Zentro pioneroa

• **Zer da osasun Zentrua?**

• Izenak berak esaten du zer den. Lehen ambulatorioa deitzen zitzaion eta orain kontzeptu aldaketa bat egon da. Osasun zentrua orain sendagile talde batek lan egiten duen lekua da, baina ez bakarrik sendatzeko lekua bat, lehen ambulatorioa zen moduan, orain zentru honetan gaixotasunen prebentzioak ere egiten dira. Orain dela 9 urte hasi ginen horrela lanean.

• **Zelako antolaketa dauka Osasun Zentruak?**

• Poliki-poliki sendagi-

le taldea handituz joan da. Gaur egun Eskoriatza eta Atxabaltak, Lenitz bailarako osasun zentruaren barruan egiten dugu lan. Horrela sendagile taldea handituz doa, eta 14 pertsonak egiten dugu lan osasun zentruan, Eskoriatza eta Atxabalta batuta.

• **Ze zerbitzu eskaintzen dituzue?**

• Pedriatria, medizina orokorra. Eta orain urte batzutatik planifikazio familiarra dago. Horretarako ere sortu zen zentru hau. Horri esker, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin sendagile bat ekarri zuten, emakumeari laguntzeko

programa bat martxan jarri genuen eta eskualdeko ospitaletik ginekologo bat etortzen da.

• **Zenbat pertsona lanean?**

• Bueno, gauregun lan taldean, 4 mediku, 2 pediatra, 4 ATS, matrona bat, ospitaleko laguntzaile bat eta bi administratibo dau-de.

• **Orain goardien aldaketa bat egon da, zergatik?**

• Goardiek azken urteotan aldaketa haundiak euki dituzte. Momentu honetan eskualdeko goardiak batu egin dira.

• **Zela gertatu da aldaketa hori?**

• Orain arte urjentzietako goardiak beste lekua batzuetan eskualde mailan egiten zirela ikusi zen eta hemen ere gauza bera egitea pentsatu genuen. Guk orain hemen bi urjentzia mota ditugu.

Lehena, 79 13 57 telefonora deitu eta urjentzietako koordinatzailea jartzen da eta berak urjentzia baloratuta gero, bera izaten da beharrezko baliabideak ipintzen dituen. Askotan galderak erantzuteko bakarrik deitzen du jendeak, baina sendagile baten beharra badago, koordinadore hori gurekin kontaktuan jartzen da eta bera izaten da urjentziaren berri ematen diguna.

Bigarrena, orain arte egon ez dena, arratsaldeko 5etatik aurrera arazoren bat daukana, Arrasateko ambulategira joan daiteke eta gutariko bat han

" 14 pertsonak egiten dugu lan Osasun Zentruan, Eskoriatza eta Atxabalta batuta "

egongo da.

Beraz hau ikusita nik uste dut Eskualdeko Erakundea ondo antolatuta dagoela, gainera hemengo medikuak ere, Arrasateko ospitalean urjentziak egiten egoten gara, beraz nik uste dut gehiago ezin dela egin.

• **Aretxabaletan medizinarene eboluzioa zelakoa izan da?**

• Nik hemen daroan 15 urteetan gauzak asko aldatu dira. Ematen diren zerbitzuak onak dira, beharbada orain zulo batean gaude, baina ez zentru hau bakarrik, Osakidetza guztia. Diru arazoak, itxoite lista gero eta haundia, ... guzti horrek birmoldaketa bat dakar.

Orain zuzendari barria etorri da, eta nik uste dut gauzak asko aldatuko direla. Arrasatera orain, okulista, traumatologo... gehiago ekarri dituzte, eta uste dut laster bukatuko direla arazo guztiak.

• **Zentru honen etorkizuna?**

• Zentru hau egin zenean komunitate desberdin bi zeuden; seguritate soziala eta Lagun Aro. Zentrua, horiei esker sortu zen. Lagun Aro erakunde pribatua da eta Seguritate Soziala publikoa, baina denon laguntzaz, lan talde bat osatu genuen.

Baina orain horrekin arazoak daude. Osakidetza eta Lagun Aro negoziatzen dabilta. Guzti honen etorkizuna negoziatzen horietan erabakiko da.



Baina Osasun Zentru honek aurrera jarraituko du.

• **Aretxabaletako Osasu Zentrua, ze mailatan dago Euskal Herrian?**

• Hau lehenengo Osasun zentrua izan zen eta Euskal Herriko beste zentru guztien aintzindari edo pionero izan zen. Lehenak ginelako, aldizkari askotan agertu da eta herriaren izena kanpoan ere entzun da.

• **Zenbat ordu egiten du mediku batek lan Atxabaltan?**

• 8etatik 1ak arte eta 3retatik 5ak arte. Beste batzuetan goardiak daude, eta orduan 5etatik 11etara izaten dira. Ordu asko nire ustetan.

• **Gaixo asko dago Aretxabaletan?**

• Ez. Baina Leintz Baillarako beste herriekin konparatuz Atxabaltan kontsulta askoz gehiago egiten dira. Honek ez du esan gura gaixo asko da-

" Euskal Herriko beste Osasun zentru guztien aintzindari izan zen gurea "

goenik, hemengo jendea medikuarengana joaten oso ohitua dago.

• **Ze gaixotasun sufritzen ditugu gehien Atxabaltarrok?**

• Arnasketakoak; katarroak, bronkitisa...

• **Asteko ze egunetan, etortzen da jende gehien?**

• Orain arte astelehenean zen, baina orain azoka dagoelako edo, martizena izaten da. Astelehenean errezetak egiteko eguna izaten da.

• **Ikusi duzun gaixotasunik arraroena?**

• Gaixotasun tropikalak. Behin, bertako bat Hego Ameriketara joan zen eta hona bueltan etorri zenean malaria zeukan.

• **Bukatzeke, udarako, ze aholku emango zenieke atxabaltarrei?**

• Kontuz ibili daitezela beroaren eraginaz, barazkiak eta frutak hondatu egiten direlako. Eta salmonellarekin ere argi ibili daitezela.

Georgia Theodorou

Greziatik Atxabaltara

- Non jaio zinen?
- Atenasen (Greziar)
- Noiz etorri zinen

Atxabaltara?

- 1988ko otsailan
- Norekin etorri zinen?

Nire senarrarekin.

Ni orain dela 8 urte etorri nintzen Euskal Herrira. Hasieran Arrasaten bizi ginen.

Zergatik etorri zinen?

Nire senarra euskalduna zelako etorri nintzen.

Zure lehenengo inpresioa?

Herri txikia zela, baina polita. Nahiko garbia eta naturatik gertu dagoena.

Ni gainera lehenengo Greziatik Toulusera joan nintzen bizitzera eta niri Toulus hiriko txiki bat iruditu zitzaidan, beraz hona etorri nintzenean benetan herri txikia iruditu zitzaidan. Baina ondo dago, desberdina da.

Hasieran ze izan zen gehien kostatu zitzaizuna?

Hemen kaleko bizitza gehiago egiten da, Toulusen eta Greziar lagunekin etxean elkartzten ginen, baina hemen tabernetan.



Hiri handi baten beharra izaten nuen askotan. Teatroaren, zinearen, denden falta sentitu nuen, hemen ez dago horrelako gauzarik.

Euskerak ze inpresio egin zizun?

Niretako hizkuntza interesgarria da. Bi urte-tan ikasten egon nintzen, beraz ulertu egiten dut, baina berba egiteko beharrik ez dagoenez ez dut berba egiten. Jende guztiak euskaraz egingo

balu, beharrezkoa izango litzateke ikastea, baina erderaz berba eginez denok ulertzen dizuteenez, ez duzu euskaraz egin beharrik eta erderara ohitzen zara.

Baina samurrena hori da. Gainera euskaldunen artean ere asko entzuten da erdera eta euskeraz ez dakitenekin ere erderara pasetan dira.

Nik uste dut herrialde bakoitzeko gauza onak ikasi behar egin di-

rela eta hizkuntza gauza onenatariko bat da. Frantziar bizitzeko frantsesa jakin behar da eta hemen ere berdin izan beharko luke.

Herriminik bai?

Bai. Urtean birritan edo joaten gara.

Ze alde dago zure herriko eta Aretxabaleto jendearen artean?

Ez dago desberdintasun handirik. Behar bada, greziarrok zabalagoan gara. Hemen hasieran oso itxia da jendea, baina gero lagun eginda gero guztiz aurkakoa.

Ze alde dago zure herriko eta Aretxabaleto usarioen artean?

Hemen jendea familiar, lagun artean baino gehiago bizi da. Gabonak familiarekin pasetan dira hemen eta hant lagunekin. Behar bada, afariren bat bakarrik egiten da familiarekin.

Zein da gehien harritu zaituen ohitura?

Txikiteoarena. Nik hasieran ikusi nuenean, lantegi baten urteera edo manifestazio bat zela pentsatu nuen. Hainbeste gizon leku beretik urtetan ikusteak harritu egin ninduen.

Zeure burua atxabaltartzat daukazu?

Gustora sentitzen naiz, baina atxabaltarra ezin naiz sentitu, lau urte bakarrik daroat Atxabaltan eta.

Atxalbaltan hamar bat mutilek osatutako talde berezi dago. Inork gutxi ezagutzen ditu, behar bada, praktikatzen duten kirola hain ezaguna ez delako.

Taldeak ez du futbola, igeriketa, eskubaloia... edo horrelako kirolik egiten, talde horretakoek xakean jokaketan dute. Orain 6



● Pala txapelketaren finalak joan zen martizenean jokatu ziren. Irabazleak Uribetxebarria eta Agirre izan ziren, finalean Azkoitia anaiei irabazita gero. Zorionak.

Xake taldea datorren urtean errejionalean

edo 7 urte sortu zen eta denbora laburrean Atxalbaltako xakea maila altura igo dute. "4 urtetan eki-poak bi maila igo ditu, bigarren mailatik preferenteraino"

Aurten egin dute azkenengo saltoa preferenteraino. "Aurten primerako txapelketa irabazita gero preferentera igo dugu, hau Gipuzkoako maila gorengoa da. Maila horretatik aurrera Euskadiko Txapelketa bakarrik geratzen da." Baina hori ez da garaipen bakarria izan. "Taldea, Bost Minutuko Gipuzkoako txape-

lketan laugarren geratzen gara eta postu horrek Euskadiko txapelketan parte hartzeko aukera eman zigun." Han egindako lanarekin pozik daude. "Seigarrenak geratu arren, pozik etorri ginen etxera, hango maila guretako larregi zelako".

Atxalbaltan xake talde inoiz ez da hain maila altuan egon. Horregatik datorren urterako ilusio handia daukate mutil gazte hauek.

Arratsaldetan, Kultur Etxean daukaten bulegoan entrenatzen dira, "Astean 8 orduz entrenatzen gara

Xakean jokatzeko; gainera, hasieran bakarrik behar da entrenadorea, behin jokatzen ikasiz gero, norberak bakarrik joan behar du teknikak hobetuz. Horretarako guk, geure artean jokatzen dugu gauza berriak ikasiz edo liburuetan begiratuz".

Talde horretako partaideek eurek bakarrik antolatzen dute dena. Denboraldia, irteerak... "Gure artean lagun giroa dago eta horrek laguntzen digu gauzak antolatzerako orduan. Hori denori, Udalak emandako diru sarrerekin ordaintzen dugu"

● Joan zen eguaztenean fulbitolo txapelketa hasi zen. Bertan, herriko kuadrilek parte hartuko dute. Guztira 21 talde dira apuntatu direnak. Partiduak arratsaldeko 6,30etan hasten dira Kurtzebarri eskola pareko frontoian edo Kiroletxean.



AZKENENGO BERRIKUNTZAK

Loramendi, 10
Tfnoa: 79 81 78

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1.º D
Tfnoa: 79 93 55



Sport
SASIAIN

Zaraia, 4
Tfnoa: 79 77 63

Aretxabaleta



Gerrak beti dakar tristura, eta normalean desagertu ziren pertsonak uzten dituzte hutsuneak betezineko zulo bihurtzen dira; gero, denborak estali egiten ditu zulo horiek, bestetan areagotu.

Gaur, orri honetara

dakargun argazkian agertzen diren hauek, 1936ko Gerrate Zibilean euren bihotza eta bizitzaren zati bat galdu zuten.

Madrilen zeuden hiru atxabaltar marianistak, sabino Ayastuy (Otala Zelai baserrikoa),

Carlos Eraña (Otala baserrikoa) eta Miguel Leibar (Sargarai baserrikoa), Ciudad Real-a ihes egin zuten eta bertan gorde-rik zeudela, salatu egin zituzten eta bertan afusilatu.

Aozaratzan, euren auzoan, "omenaldi" antzeko batetan, hiru ize-nak jasotzen zituen marmolezko hilarria jarterakoan han bildu ziren senide, lagun eta auzokoak. Ezkerretik hasita (emakumeak lehen lerroan): Juliana Bolinaga (Okina baserrikoa), Matiasa Errasti (Otalazelai baserrikoa), Rosa Urrutia (Zelaiko baserrikoa) eta Gregorio

Etxabe (Otala baserrikoa). Atzekaldean ikus daitezkeen bi gizonak: erdian ezkerrekoa Saturnino Eraña (Otala baserrikoa) eta Paulo Ayastuy (Otalazelai baserrikoa).

Hilarria, Aozaratzako elizako ate gainekaldean jarri zen eta luzaroen hor iraungo du.

Ikus dezakegunez, garaian garaiko, orduko ohiturak zioenez besoa altxatuz agurtzen zituzten "caídos por Dios y por España"-koak.

Ziur asko, garai hartan, hain urruti zegoen España hark ez ziela bete euren adiskide eta senideek utzitako hutsune negargarri hura.

ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
- Asmetan dutenen artean Everest espedizioko kamiseta bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den leihoa?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Azatzako eliza)



Aurreko lehiaketaren irabazlea **IBAI ALZOLA PEÑARANDA** izan da. Zorionak!

Erantzuna:

- Izen-abizenak:
- Helbidea:
- Tfnoa:

AMANTALAZ



Oraingoan sukaldaria: Iñaki Arana

Kafe Irlandarra

Lau lagunentzako osagaiak:

Lau kafe

Lau kopa whisky

16 goilarakada txiki esnegari

lau goilarakada txiki azukre

goilarakada bat kafe ehotu

Zelan egin:

Whiskya kopa egokietan ipini eta gero kafe beroa bota azukrea nahastuta gero. Hori egindakoa, kontu haundiz eta goilararen laguntzaz, nata gaineratu. Natak apur bat irabiatuta egon behar du, eta ez du kafeaz nahatu behar, gainean geratu behar du. Bukatzeko kopa bakoitzean ehotutako kafe apur bat botako dugu.

POESIA

Liburu bat zabalik geldituko da
gutun bat idatzi gabe,
zuhaitz batetik hosto bat jausiko da
eta ni zutaz urrunduko naiz;
herria haltzari gainean
gure aztarnak kubrituz
haizeak oroitzapena gordez
gure maitasuna emanez,
dena igarotzen da, poliki poliki
gure bihotzentzat,
haizeak oroitzapena gordez
gure maitasuna emanez;
baliteke egunen batean, baliteke zuk
pentsatzea
gure etxe horretan
non zu eta ni bizi izan ginen
inoiz ez gara etxe horretara itzuliko
hori uste dut nik.

JON LEKUNBERRI

**Orrialde honetan txistek, poesiak,
bertsoak... argitaratu gura badituzu,
zuzendu gure bulegoetara ego 151
postakutxatilara.**

KOMIKIA



APUNTETAKO

4 ZAPATUA

- **Kontzertua:** ROUGE & NOIR eta ARETXABALETAKO ABESBATZA, Aretxabaletako Parrokian, arratsaldeko 7,30etan.

5 DOMEKA

- Margo **lehiaketa**.
- **Zikloturisten** irteera: Aretxabaleta - Arlaban - Urbina - Gasteiz - Otazu - Okina - Aretxabaleta. (96 Km)
- Zaraia mendi taldea **Yoar**-era

10 EGUAKOTXA

- Aretxabaletako gaztetxean, gaueko 11etan "Zakarrak" Arrasateko taldea eta "Heriotza" Eskoriatzako taldeen **kontzertua**.
- Larrinoko jaien hasiera.

11 ZAPATUA

- Larrinoko jaiak

12 DOMEKA

- Zaraia mendi taldearen **irteera:** Aretxabaleta - Urdalaitz.
- **Zikloturisten** irteera: Aretxabaleta - Udana - Azkoitia - Elosua - Aretxabaleta. (76 Km)
- Aretxabaletako gaztetxean, gaueko 9retan "Gunsha" Berlindik datorren taldearen **kontzertua**.

18 ZAPATUA

- Gaztetxean, gaue-

ko 11etan "Vitus dance" gasteizeko eta "Beerh Moss" Bilboko taldeen KONTZERTUAK.

19 DOMEKA

- Gaztetxean, gaueko 9retan "Z.S.D" talde ingelesaren **kontzertua** egongo da.
- Zaraia mendi taldearen **irteera:** Kosta aldera ibilaldi bat, hondartzara.
- **Zikloturisten** irteera: Aretxabaleta - Arlaban - Urbina - Alegria - Gereñu. (96 Km)

ARETXAZOKA

Etxebizitzak

- Etxebizitza alokatu nahi dugu. Tfnoa: 77 02 42
- Alokatzeko etxebizitza bila gabilta. Tfnoa: 79 47 00
- Garaje bat salgai, Andra Mari auzunean. Tfnoa: 79 47 62
- Garaje bat salgai Otalora, 11 kalean. Tfnoa: 79 47 62

Lana

- Esperientzidun batek ingeleseko klaseak emanago lituzke. Interesatuak deitu, 79 04 95 telefonora.
- Haurrak zaindu eta etxeko lanetaz arduratzeko emakume euskalduna behar da. Interesatuak dei ezazu 79 88 54 telefonora gaueko 8etatik 10etara.

Salerosketak

- "Makario" markako egoera onean dagoen korredorezko bizikleta bat saltzen da. Oso merke. Tfnoa: 79 97 88
- Bi gela bikoitzeko kanping-denda salgai. abanze handiz, pasilloa eta guztiz. Dei egin 8etatik 10etara 79 56 06 tfnora.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

PUBLIZITATEA

SEAT



**GARAGE
OSKAR**

Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

ZARIAI TABERNA

**GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN**

MANTEKA
ANAIK

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak

Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 31 84

GARAGE

" EDER "

**Karrozeria
mekanikoa**

IBARRA Z/A
Tfnoa: 791666
ARETXABALETA

**Mobiliario
ARENZA**

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

EROSKI

Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
DURANA ETA ARALAR KALEETAN
Tfno: 79 16 05

OILASKO - URDAITEGI - IZOZKIAK

IÑAKI

Gipuzkoako plaza, 1 Tfnoa: 77 02 99

ARETXABALETA


NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79 70 66

**" HERRASTI "
AKEITA ETXEA**

Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83



DORLAK

DORLA, S.A

ARETXABALETA
BASABE POLIGONOA, C.O.2.3
Tfnoa eta Fax (943) 79 82 77

Gozkidegi, S.L.



**GOZODENDA
eta IZOZKIDENDA**

Otalora Kalea; 4
Tfnoa: 77 13 57

IBARRA ESTANKOA

**TABAKO, IKAS MATERIALA ETA ZERGA
IMPRIMAKIEN SALMENTA**

Bizkaia, 3
Tfnoa: 79 23 77
ARETXABALETA

JAUREGI

OKINDEGIA

Otalora, 10

ARETXABALETA

URRETZO

**Pinturak, papelak,
mokatak.**

Gorbea 2
Tfnoa: 79 04 16
ARETXABALETA

**Gipuzkoa:
bihotz-bihotzean**



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa

caja gipuzkoa
san sebastián